

# Bixente Barandiaran



Eskutitz bat artu det  
gaur egoardian  
biar ordu batean  
zer egin beardian  
bereala jarri naiz  
juateko idian  
ezer pasatzen ez bada  
beintzat bidian

Lan onekin nik ere  
nai nuen parte  
nola izaten dean  
orrenbeste tarte  
ez gera lasa izaten  
lanak egin arte  
ondo bukatutzeko  
bagendu suerte

Gurrutxaga jauna da  
bialdu didana  
pozik egin nai diot  
eskatu didana  
nolaz oroitzen zera  
ainbat neregana  
birtuten bat badezu  
Jaunak emana

Aize otzan bildurrez  
gabiltza neguan  
gaztetan errezago  
pasatzen genduan  
alperrik pentsatzea da  
orduko moduan  
saldax pixkat artuaz  
suaren onduan

Ezin azturik nago  
ni orko lagunez  
pentsamendu bat daukat  
gauzez da egunez  
erregali asko jaso  
ezer eginez  
ori pentsatzen nago  
barrengo saminez

Akordatzen nitzen ba  
apaltzeko orduan  
zein egon zitekean  
or zuen onduan  
umore ederrakin  
betiko moduan  
bañan gusto guziak  
ez daude munduan

Aldaba ez nuke nai  
zuekin utsegin  
len degun maitasuna  
atzen du ez dedin  
zurekin egotea neretzat  
nola dan atsegin  
Jaunak nai badu biar  
nai det itzegin

Lenago eskatzen gendun  
guk ere zartzea  
fristetzeko naiko da  
pentsatzen jartzea  
len ez genduen miña  
nun naitik sortzea  
arritzekoa ez degu eta  
ola gertatzea

Ni artutzen nazute  
Jaun baten moduan  
zer egiten dedan nik  
daukat goguan  
zorrik ordaindu gabe  
betiko moduan  
ezer egin albaneza  
pozik egingo nuan

Azucarra dabilkit  
goraño igota  
sendagileak kontuz  
sarritan diota  
garai baten bezela  
tragok ezin bota  
orreatikan etxean  
bildurrez nagota

Segituan jarri naiz  
biar pozean  
beste egiteko bat  
badaukat goizean  
eramaten banaute  
norbaitek kotxean  
oinez ere jungo naiz  
besterik ezean

Gustora eltzen diot  
sukaldeko lanai  
aldeadana eginez  
eskatzen duanai  
orri ez diot utziko  
albadet nolana  
zartuagatik ez det  
mundutik jua nai

Eskutitz bat artu det  
aurreko astean  
maitasunez egiña  
au nere ustean  
zer poza artu nuen  
on ikustean  
alaitu jartzen nau  
kantatzen astean

Suerte bat badaukat  
ez du ematen minik  
ezin esan nagola  
supritu ezinik  
gavean beintzat lotan  
oan etzainik  
ez nun pentsatzen orrela  
itzi bearzinik

Badaukat goguar  
egoteko zuekin  
Amuletako berriak  
nai nituzke jakin  
danok zabiltzate noski  
Oarsoren lanakin  
ni ere agertuko naiz  
egin dedanakin

Nola ez dedan gogorik  
ontan gelditzeko  
beti prest egoten naiz  
lagunak serbitzeko  
gauza naizen artean  
ola ibiltzeko  
naiz abila ez izan  
ondo ipintzeko

Martxoaren amaikan  
aparia jartzeko  
ni ere zalefan negon  
Amuletan sartzeko  
osasunez banegoke  
lengoa antzeko  
izango nun gogoa  
zuekin biltzeko

Sendagileak diona  
alkola neurrian  
jatekore gauz asko  
utzi bearran  
gorputza ez dabilkin  
oso indarran  
pozez ezin agertu  
lagunen aurrian